

Lujanbiok, Irazuk eta Lizasok Urruñan kantatuko dute bertsozaletasuna sustatzeko

■ *Gaztetxoek ere parte hartuko dute igandeko bertso saioan*

Eneko Bidegain / Baiona

HAZIA eta Bertsularien Lagunak elkarteek bertso saio bat antolatuko dute heldu den igande arratsaldean, lauretan, Urruñako Itsasmendi zinema gelan. Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Jexux Mari Irazu, Mixel Xalbador, Amets Arzallus eta Sustrai Kolinak kantatuko dute. Azken bi horiek 17 urte dituzte, eta jadanik maila ona erakutsia dute Euskal Herriko gazteen zeingehiagoketan. Karlos Aizpuruak emanen ditu gaiak. Iparraldeko gazteak bertsozaletasunera erakarri nahi ditu Bertsularien Lagunak elkarteak, Kepa Muruak zehaztu digunez.

«Hamabost urteko gazte bat ezin liteke bertsozale bihurtu 40 urtez gorako bertsolariak entzunez bakarrik», gehitu du. «Amets Arzallus eta Sustrai Kolina ongi abiatu dira eta gazteak animatu dira», esan digu Muruak.

Iparraldeko bertso eskoletako sei gaztek abiatuko dute bertso saioa. Hendaia, Baiona, Ziburu eta Kanboko bertso eskoletako hamabi bat urteko gazteek bertso bana kantatuko dute, bertsolari bakoitzaren aurkezteko. Iparraldeko bertsogintzaren hats berria erakutsiko dute igandean gazte horiek.

Urruñak bertso saioen antolatzeako ohitura bazuen lehenago ere, Telesforo Monzonen garaian eta Emile Larre bertako erretor zelarik. Uztapide, Basarri, Xalbador eta abar ekarrarazten zituzten. Hazia elkarteak bertso saioen antolaketa berriz abiatu zuen. *Mattin-Xalbador bizi dira* leloa eman diote igandeko ekitaldiari.

l a b u r r e a n



EDURNE KOCH

Erga Omnes taldeak diskoa aurkeztu du. Donostia Hiria Pop-Rock Lehiaketako iazko irabazle izan zen aldtik, grabatzea zegokion diskoa aurkeztu du Erga Omnes Ordi-ziako hirukoteak —Joseba Basarte ahotza eta gitarra, Imaki Munduate baxua eta Xabi Lopez bateria— *Pre* izenburua jarri diote diskoari. Taldeak ingelesez abesten du, eta aurre-*ra* begira, zuzenean jotzea dute helburu.

Z I N E M A

■ **‘Mifune’ filma emango dute gaur Iruñean, Karrikirik antolatu euskarazko zinemaren zikloan**

SOREN KRAG JAKOBSEN zuzendariaren *Mifune* pelikula eskainiko dute gaur Iruñeko Golen zinematokian, Nafarroako Gobernuako Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren laguntzaz Karrikirik antolatu euskarazko zinemaren zikloan. Filma jatorrizko bertsioan emango dute, euskarazko azpitituluekin. Aurretik, Koldo Almandozen *Adar bakar* film laburra pantailaratuko dute.

A R T E A

■ **Lizarrako IV. Margo Biurtekoan parte hartu zuten lanekin erakusketa paratu dute Gustavo Maeztu museoan**

IAZKO Lizarrako IV. Margo Biurtekoan parte hartu zuten hainbat lanekin erakusketa jarri dute, hilaren 27a bitarte, Lizarrako Gustavo Maeztu museoan. Tartean dira lehiaketa irabazi zuen Miguel Galano artistaren lana eta Din Matamorro eta Xesus Vazquezena. Azken bi artistok aurkeztutako obrak erosi egin zituen Lizarrako Udalak. Denera 27 lan bildu ditu erakusketak museoan. Era askotako estilo eta teknikak agertzen dituzte.

L I T E R A T U R A

■ **Mungiako I. Liburu Azoka egingo da gaurtik hilaren 13ra arte, Matxin enparantzan**

GAURTIK hilaren 13ra arte egongo da zabalik Mungiako I. Liburu Azoka. Matxin enparantzan apailatuko dituzte salto-kiak, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara. Euskal literatura eta diskoak izango dira eskaintza nagusia. Helburua irakurzaletasuna bultzatu eta zabaltzea da, «liburua herriarengana hurbilduz».

zinema ♦ JUANA DE ARCO

Hor nonbait galdu ziguten dontzeila

■
Filma: Juana de Arco, Frantzia-EEBB, 1999. **Jatorrizko izenburua:** Jeanne D'Arc. **Zuzendaria:** Luc Besson. **Gidoia:** Andrew Birkin, L. Besson. **Argazkia:** Thierry Arbogast. **Musika:** Eric Serra. **Aktoreak:** Milla Jovovich, Dustin Hoffman, John Malkovich, Faye Dunaway. **Iraupena:** 160 minutu.

LUC BESSON gauza da kasik hiru ordu irauten duen film bat egiteko. Luc Bessonek badaki zeluloidezko armadak mugitzen pantailan zehar, pantailan barrena. Luc Bessonek ikuskizunaren jakituria badu. Luc Bessonek ez ditu zinema, bizitza, zeru eta infernuetako mugak ezagutzen edo onartzen. Onerako. Txarrerako. Eta horrek kalte, min, atsekabe ematen dio Joana Arcekoari buruzko bere gogoeta odoltsu eta herese honi.

Luc Bessonek lortu nahi duena begi-bistakoa da, ingelesak Frantziatik uxatu nahi izan zituen neskato haren barneko kezka, barruko duda-mudak, bakardade handia, mende-ku egarria eta bakerako grina azaldu gura du *Nikita*-ren egileak. Jainkoa jada ez du lagun Donremyko dontzeilak. Odolez blai izango da askotan, berak isurraziti duen odolez blai. Kartzelan dagoela, bisitari estraino

bat izangodu, izenik ez duena, izanik ez duena. Horrek aurpegira botako dizkio Joanari bere kontraesan guztiak. Bitartean, batzuek eta besteek Orleanseko eme gerlaria erabiliko dute nahi duten bezala...

Baina ez da nahikoa. Edo agian gehiegizkoa da. Luc Bessonek gogoeta baino espektakulua nahiago du. Odola eta ezpatak darabiltza aise eta airoso, baina porrot egiten diote fantasia merkezt gainezka diren plano sasimagikoek. Ezinak, ezinak betetzen ditu *Juana de Arco* horren barrenak. Ezina paseoan dabiltzan Malcovich, Hoffman eta Dunawayren aurpegi eta maneretan. Ezina filmaketaren barrualdean. Barregurea zenbait fotogramatan.

Metafisika ahula banatzen du alferrik gidoiak, kamera hanpurutsu dabilen artean. Joana, berriro ere, itzalek harrapatuturik gertzen da. Oraindino inor ez da ausartu Jainkoen, erregeen, Elizaren azpijoko guztien biktima eta objektu izan zen neska horren egia bilatzen. Hori bai, mitoak indartsu dirau zeluloidezko aldareetan.

✍ *Begoña del Teso*



‘Juana de Arco’ filmeko irudi bat.